



LORLE

EUSKAL KULTURA GAUR



Anton Abbadía

Dublínetik Hendaiara

Euskal kulturaren **berpiztearen bizitza bidaia**

Anton Abbadia

Dublínetik Hendaia



ANTON ABBADIA

1853ko udaberria zen eta Anton Abbadia geografoa, astronomoa eta kulturgilea kezkatu-
turik zegoen euskal kultura nola biztu behar hausnartzen. Erromantikoa zen Abbadia
eta Euskal Pizkundean partaidea.

Aipatu urte hartan, musika, dantza eta batik bat euskal poesiari buruzko jardunaldiak antolat-
zea otu zitzaion. Horrelaxe sortu ziren aurreneko Euskal Lore Jokoak.

Urruñan plazaratu ziren eta euskal kultura ikusgarri jartzen zuen bide luze bat zabaldu zuten.

Anton Abbadia Dublínen etorri zen mundura 1810ean eta 1897ko martxoan joan zen.
Bizitza luze hau bidaia emankorra izan zen. Irlanda, Frantzia, Norvegia, Brasil, Egipto,
Etiopia... ezagutu zituen. Nabarmena da Afrikan, Etiopian hain zuzen, eman zituen urteak.
Bertoko etnografia aztertu zuen eta hainbat hizkuntza ikasi ere.

Bizitza bidaia-aren amaieran Hendaian aurkitu zuen landarik egokiena azken egoitza eraikit-
zeko. Itsasoari begira gaztelua altxatu zuen. Bertan liburutegi handia altxatu eta, bertatik,
euskal kultura munduko beste kulturen pare xedearekin hainbat ekimen jarri zuen abian.

LORALDIA FESTIBALAK lekukoa hartu du eta asmo eta gogo berarekin euskal kultu-
ra garaikidea plazara jalgi nahi du.

2015eko udaberrian Aitor Mazo aktoreak Anton Abbadiaren izana eta izena hartu eta eszenara eraman zuen aurreneko LORALDIA FESTIBALARI hasiera eman ez. Tamalez, handik oso gutxira Aitor Mazoren bihotz handia gelditu zen.



Antxon Abbadia: Aitor Mazo, 2015eko Loraldia Arriagan.




Antxon Abbadia: Txomin Heguy



Musikariak: Xabi Zeberio.
Nyckelharpa, biolina eta kalimba



Mixel Ducau: gitarra eta klarinetea.



Alaia Phillips Ducau: boza

2018ko martxoan, Aitor Mazo gogoan, Patxo Telleriak idatzi zuen testua berreskuratu dugu eta Anton Abbadia berriro eszenara itzuliko da. Orain Txomin Heguy aktoreak hartu du antzezteko lana eta berarekin batera hiru musikari txikiak dira. Formatu txikiko antzezlan honek laugarren LORALDIA FESTIBALARI hasiera emango dio.

XXI. mendeko Lore Joko modernoek Arriaga Antzokian aurkitu dute eszena toki.

ELKARLANA

Sormen honen izaera elkarlanean datza. LORALDIA FESTIBALAK abian jarri zuen ekoizpena. Sormen bidaia honetan Chimères Antzerki Taldea eta Metrokoadroka Sormen Laborategia izan ditu bidaide.

Patxo Telleriaren istorioa eta Arriaga Antzokiko babesa dira elkarlanaren beste bi zutabe.



Anton Abbadía



Dublinetik Hendaiara

Testua

Patxo Telleria

Antxon Abbadia
Musikariak

Txomin Heguy
Xabi Zeberio: nyckelharpa, biolina eta kalimba
Mixel Ducau: gitarra eta klarinetea
Alaia Phillips Ducau: boza

Zuzendaritza
Argiak
Ekoizpena
Koordinazioa
Irudia

Oier Guillan (Metrokoadroka)
Maria Alias Romero
Aitor Narbaiza (Loraldia)
Imanol Agirre (Loraldia)
Unai Molina (Loraldia)

Loraldia Festibalak sustatutako ekoizpena.

Chimères Antzerki Taldea eta Metrokoadrokarekin elkarlanean.

